



2008ko  
Lasarte-Oriako  
Udaleko  
aurrekontua  
onartu da /4

**GR16an LasarteOria-Azpeitia Zabaleta auzoan-** Lasarte-Oriako eta Azpeitiko bertso eskolek GR16 sariketako saioa dute gaur ostirala, maiatzak 9, Zabaleta auzoan, afafolestean. Gutxi gorabehera gaueko 10.30ak aldean, bertso eskola bakoitzeko hiru ordezkari arituko dira. GR16 sariketan Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Lapurdiko 16 bertso eskolek hartzen dute parte. Herrikoak, Azpeitia, Zestoa eta Zarauzkoekin arituko dira lehen fasean. Sei kanporaketa jokatu ondoren, hiru etxean eta hiru kanpoan, puntu gehiena eskuratzen dituen pasatuko da finalerdietara. Epai publiko izango da. Zabaleta auzoan hasi dira jada hilaren amaieran burutuko diren festatarako motorrak berotzen. •

## Kosmodisea lehiaketan lehen saria

Lasarte-Usurbilgo Institutuko Jon Pello Artetxe, Erik Arzalluz, Leire Lazkano, Iker Eneko Ortega eta Irati Perezek Kosmodisea lehiaketa irabazi dute. GFaren Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamenduak antolatutako lehiaketan irabazleak, argazki eta irudiekin egindako aurkezpena eta bideo bat aurkeztu behar zituzten. Lehiaketaren helburua, baliabide tekniko berrien erabilera trerabateaz gain, ikasleen arteko eztabaida, ekimena eta lankidetzaz sustatzea da eta institutuko-ek lortu dute Karlos Kortabarria irakaslearen laguntzarekin. •



### GIZARTEA ■ 5

**Oinatz taldeak  
antolatutako  
lehenengo  
irteera  
arrakastatsua**

### KIROLA ■ 6

**David Martin,  
herriko atletak  
lehenengo  
postua  
bereganatu zuen  
Andoaingo  
Krosean**

### KIROLA ■ 6

**Herrien arteko  
esku pilota  
txapelketatik at  
geratu dira  
lasarteoriatarrak**

## M. Berasategi Kafeak



Beti dago aukera  
kafe on bat hartzeko



### INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

### TRINA GABEAK

- MELISA, TILA,  
KAMAMILA, MENTA,  
SAGARRA, ANIXA,  
MAKILGOXO, ROOIBOS,  
e.a...

### KAFE ARABIKOAK

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316  
LASARTE-ORIA

**Neure kabuz**



**Lau gauza dira beharrezkoak, mundua apur bat itxuratuko bada**

Nahi bai, baina ezin gauza handirik egin mundua konpontzeko, azkenean, egoeraren gainean 4 gauza idaztearekin konformatzen gara. Hain zuzen, 4 gauza dira beharrezkoak munduaren martxa hobetuko bada. Denok ulertzeko moduko 4 metafora dira: a) gaixotasuna zein den aztertu eta diagnostiko egokia egin, b) gose denari arraina eman c) arrantzan irakatsi d) depreadoreak salatu eta horien aurka borroka egin. Ez dago arazo handirik gaixotasuna zein den erabakitzeke. Munduaren %80 zeharo marjintatua eta miserian bizi da; ez uste, kasualitate hutsa denik, naturak ezarritako patua denik, ez; baizik eta hemisferio batek besteari ezarri dion zigorra da. Munduak ezin du jasan gehiago kontsumitzerik, baña bai kontsumoa banatzea.

2. da arraina ematea. Horregatik, begi onez ikusten ditugu GKEk, lan handia egiten ari baitira, munduko oinazeari aurre egiten. Beharrezkoa da arrantzan irakastea ere, hezkuntza eta teknologia esportatzea. Denetan garrantzizkoena da depreadoreak salatzea eta horien kontra borrokatzea. Identifikaturik dauzkagu depreadoreak: multinazional, estatu boteretsu, banku, etab. Batez ere, guk estatuen kontra egin behar dugun borroka, BPGren %0,7 errespeta dezaten, kapitalismo basatiari eta neurri gabeko prezioei neurriak ipin diezaizkieten. Eta ez daukat gizabanako gisa zertan flagelaturik neure burua.

Rufino Iraola

**Zorion-agurrak**



**Iker**

Zorionak eta txokolatezko bi muxu, amatxo, aitatxo eta famili guztia- ren partetik.



**Julen**

Zorionak eta bi muxu handi, amatxo, aitatxo, familia eta lkerren partetik.



**Nerea**

Bihotz-bihotzez egun zoragarria opa dizugu zure 6. urtebetetzean, familaren partetik.



**Irene eta Fermin**

"Bai nahi dugu" primeran pasa. Orain arte bezain zoriontsu izaten jarraitu dezazuela.



**Gorka**

Zorionak eta hogeita hamar muxu handi Lasarteko mutilik katxarroenarentzako.



**Maialen**

Zorionak eta 3 muxu handi, aitona Juanjo, amona Mila eta familia guztia- ren partetik.



**Ane**

Zorionak Printzesa ! Lau muxu handi Aitatxo eta Amatxoaren partetik.



**Enara**

Zorionak, zure gurasa- ak, zure ahizpa, aiton- amonen eta Maiteren partetik.



**Nerea**

Zorionak capoeirista! Noizko errumanieraz- ko abestia edo bana- neira bat ?

**Guardiak**

**Ostirala, 9**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Larunbata, 10**

Urbistondo, San Frantzisko 1  
Tel.: 943 366567

**Igandea, 11**

Urbistondo, San Frantzisko 1  
Tel.: 943 366567

**Astelehena, 12**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Asteartea, 13**

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Asteazkena, 14**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Osteguna, 15**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Telefonoak**

**Osasuna / Larrialdia**

Osasun Zentroa ... 943 007960  
DYA ... 943 370000  
Gurutze Gorria ... 943 363953  
Udaltzainak ... 943 362442  
Ertzaintza ... 943 288888  
SOS Deiak ... 112

**Udala**

Erregistroa ... 943 376055  
Euskarako Zerbitzua 943 376184  
Kiroldegia ... 943376182  
Kulturetxea ... 943376181  
Bakezko epaitegia ... 943371629  
Zerbitzu Sozialak ... 943376179  
Zentro Zibikoa ... 943363958  
KIUB ... 943361605  
Udal euskaltegia ... 943361621  
Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

**Azoka txikia**

**Eskaientza inmobiliarioak**

• Hiru gelatako pisua bilatzen det alokatzeko. Abala eta informea dauzkate. Tel.: 697807403

• Baserri bat alokairuan dugu Alkizan. 160 metro karratu, txukun amueblatua, 3 solairuekin eta bi terraza (20 eta 25 m.). Paraje zoragarria, merkea. Tel.: 619 349 385 (Iñaki).

**Salerosketak**

• Kafetera, kafe-errota, izotza egiteko makina eta ontzi-garbigailua, 2 haur logela osoak eta 3,10mko neurria duen libreria armairua salgai. Egoera onean eta merkeak. Tel.: 607 983512.

• Trabesiako eskiak saltzen ditut. 1,68 zm. Egoera onean. Tel.: 637587806-943376378

**Oharretarako:**

943 366858 • txintzarri@ttakun.com • Geltoki kalea 4

• 2 ohe zubi eta guzti, matrimonio ohea, 4 ateko 2 armairu handi, 2 mesilla eta komodina, 2 ohe indibidual. Denek koltxoi berria dute eta altzariak berriak daude. Labadora, mikro uhina eta hozkailua. Sarrerako altzari berria eta 2 lanpara. Tel.: 943 366876.

**Lan-eskariak**

• Pertsona euskaldun bat eskaintzen da, maiatza eta ekainean haurrak zaintzeko edo eta klase partikularrak emateko. Tel.: 625 708187

**Lan-eskaientzak**

Matematikako irakaslea behar da 6.mailako ikasle bati klaseak emateko. Ordainduta. Tel.: 607640030, Mari Carmen.

**Jaiotzak**

Laia Lecaroz Salvador, maiatzaren 3an.  
Jon Felipe Fernandez, maiatzaren 2an.  
Mikel Iglesias Lopez, apirilaren 25ean.

**Heriotzak**

Juan Azkonobieta Yerobi, maiatzaren 3an 89 urte zituela.  
Maria Justa Arandia Gaztañaga, maiatzaren 3an 95 urte zituela.  
Felix Garcia Esteve, maiatzaren 3an 62 urte zituela.  
Vicente Mendo Duarte, maiatzaren 2an 61 urte zituela.  
Jose Ramon Balda Liceaga, apirilaren 27an 73 urte zituela. (Sukoa denda)  
Nicolas Bermejo San Juan, apirilaren 25an 78 urte zituela.  
Ines Jimenez Martin, apirilaren 25ean 65 urte zituela.



**Gazte Informaziorako Udal Bulegoa**

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki Kalea 18 • Tel.: 943 376181

**Enplegu Azoka**

Lan bila bazabiltza, Enplegu Azoka da zure lekua. Maiatzaren 14an eta 15ean egingo da, 9:00etatik 18:00etara Cemei eraikinean. CEME-n, (Portuexxe, 23 A - Igara), Donostiako Sustapenak, Enplegu Azokan izango diren elkarrizketetarako hitzordua emango dizu. Izen-ematea maiatzaren 5etik 11a bitartea egin beharko da.

**Ikasleentzako praktikak**

Diplomatura eta lizentziatura (2.zikloa) ikasketak egiten ari diren ikasleei zuzentzen zaie eskaientza. Gutxienez 2 hilabete eta gehienez ikasturte batekoak izango dira praktikak; 2008ko udan eta 2008-2009 ikasturtean egingo dira, DV egunkariko sail desberdinetan eta www.diariovasco.com webgunean. Epea maiatzaren 14an amaitzen da.

**Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Txakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintzarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintzarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



"Salbuespen egoerari Stop, Euskal Herriak autodeterminazioa" lelopean hainbat lasarteoriatar elkartu zen atzo iluntzean Tajamarren.

## Salbuespen egoerari STOP

- Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea eskatu du ezker abertzaleak
- Azkenaldikoko erasoak, bereziki, Ino Galparsororen kasua salatu ziren

### TXINTXARRI

"Salbuespen egoerari Stop, Euskal Herriak autodeterminazioa" goiburuarekin, hainbat lasarteoriatarrek konzentrazioa egin zuten ostegun arratsaldean Tajamarreko biribilgunean.

Lasarte-Oriako sarrera honetan, Eusko Tren geltoki parean, ostegun, arratsaldeko 8etatik aurrera bildu zirenek, euskaldunak azkenaldian jasaten ari diren jazarpe-

na eta erasoak salatu zituzten, bereziki, aurreko astetik kartzelan den Ino Galparsoro Arrasateko alkatearen kasua.

Jakina da herri honetan PSE-PSOE eta EAJ-PNVk Ino Galparsoro alkateak kargua uzteko egindako proposamena atzera bota zuela udal batzak eta ondoren, egun batzuetara, Baltasar Garzon epaileak Madrileren Entzutegi Nazionalera deklaratzera deitu eta kartzelan sartzeko erabakia hartu zuela.

Ostegun arratsaldeko protesta deitu zutenek jakinarazi dutenez, eraso horiek Euskal Herri osoaren aurkako erasoak dira eta erantzuna eskatzen dute. Besteak beste, ANVko ordezkarien aurkako zigorrak, AAM, Amnistia-aren aurka Madrilen Entzutegi Nazionala egiten ari den epaiketa, gazteen aurkako jazarpena eta preso politikoen egoera aipatu zituzten egoera berezi eta Euskal Herriaren

aurkako erasoaren adibide gisa.

Salbuespen egoera salatuko eta Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea eskatzeko bilketan PSOE eta EAJ alderdien jokabidea salatu ziren. Ezker abertzaleko ordezkarien ustez, ezin da erantzunik gabe utzi PSOEk errepresioa areagotzeko hartu duen bidea, eta bide batez, zeregin horretan Euskal Herriaren EAJ-PNVk ematen dion laguntza ere salatu zuten. •

### Musika

## Musika topaketen azken kontzertua

Gaur gaueko 19:30ean Rosat eta Ruti hirukotearen emanaldia egongo da Brigidatarren komentuan. Danok Kide elkartearen Esperientzia Eskolaren III. Musika Topaketak direla eta antolatu dute flauta, biolin eta fagot kontzertua. Hirukotea Carlos Rosat Martinez, Tomas Ruti Vilar eta Tomas Ruti Parrak osatzen dute.

Carlos Rosatek flauta jotzen du, Bartzelonan ikasi zuen Salvador Gratacós flautajole famatuarekin eta 1982. urtetik Euskadiko Orkestrako kide sortzailea da. Tomas Ruti Vilar Madrilen jaio zen baina

biolin ikasketak Lasarte-Orian hasi zituen eta Londreseko "Royal Academy of Music"en bukatu zituen ikasi beharrek Howard Davies maisuarekin. Tomas Ruti Parra ere Madrilen jaiotakoa da eta bertan osatu zituen musika ikasketak Francisco Vialcanet eta V. Merencianorekin.

XVIII. mendeko Europa erdialdeko musikagile nabarmenen maisulan ekarriko dituzte gaurkoan entzungai. Mozart, Haydn eta Beethovenen lanez gain XVIII. eta XIX. mende artean ibili zen Françoise Devienne-nen lanak ere joko dituzte. •



### OPORRALDIAK

## Udalekuetan izena emateko epea irekita

Astelehenean, maiatzaren 5ean, ireki zen udalekuetarako izena emateko epea. Udalekueko Erregistro Nagusian egin ahal izango da 9:00etatik 13:00a bitarte maiatzaren 30a arte. Udalekuak uztailearen 1etik 15era luzatuko dira Burgoseko Pradoluengo herrian. 67 plaza daude eta eskabidea egiten den hurrenkeran onartuko dira haurrek. 233 euro ordaindu beharko dira parte hartu nahi izanez gero baina gizarte edo ekonomia mailan ezintasunak dituzten familietako haurrek salbuespena edo hobaria izateko eskaera egin dezakete. Horretarako, eskabidearekin batera, eskatutako agiriak aurkeztu beharko dira.

### MUSIKA

## Musika eskolako matrikulazioa zabalik

Musika-eskolako 2008-2009 ikasturterako aurrematrikula egiteko epea irekita dago. Hil honetako 23ra arte egin daiteke Kulturetxean. Plazaren eskaera egiterako unean 40 euroko zenbatekoa kargatuko da interesatuak emandako kontuan, gero zenbateko totalari kenduko zaizkionak.

Aurrematrikula egin eta gero matrikularekin formalizatu da izen ematea emakuraren 23tik uztailearen 11 bitarte.

Aukerak anitzak dira, gaxtetxoek ikasi eta aldi berean ondo pasa dezaten, musikarekin hitz egiten, abesten, mugitzen eta amets egiten ikasten dute txokoetan. Zortzi urtetik aurrerakoek abesbatzan hartu dezakete parte, bertan musika egiteko ahotsa "a capela" edo instrumentu talde desberdinekin nahastuta. Hamalau urtetik gorakoek instrumentu asko ezagutzeko aukera dute, pianoa, trikitixa edo kitarra elektrikoa beste askoren artean. Bakarka edo taldeka ezagutu eta disfrutatuta daitezke musika horregatik folk taldeak beste aukera bat ematen du eta taldeekideekin pop eta jazz bezalako estiloak lantzeko aukera dute instrumentu ezberdinen artean.

### MUSIKA

## Pentekostes eguna

Igandean, hamaiketako mezarekin batera, kantu gregorianoak entzuteko aukera egongo da Schola Gregoriana Donosti Ereskiren eskutik Brigidatarren komentuan.

# Gobernu taldeko aurrekontua aurrera doa

## Onartutako aurrekontuaren %47,2a inbertsio publikoan joan da

PSE-EEK eta Ezker Batua Berdeak aurkeztutako aurtengo aurrekontua onartu zen aurreko asteko osoko bilkuran. Gobernu taldeko botoekin atera zen aurrera, izan ere oposizioak aurrekontuaren kontra bozkatu zuen eta Herritarren Plataformak abstenitzea erabaki zuen.

**Iztia** CARRASCO

Lasarte-Oriako Udalaren aurtengo aurrekontua onartu zuten aurreko astean, 41.295.000 eurotako aurrekontua. Udalak inoiz kudeatu duen aurrekonturik altuena da, iazkoa baino %43,13 handiagoa. Eskuineko koa-droan datu esanguratsuenak ikus ditzakezue.

Gobernu taldeak hiru ardatz nagusi nabarmentzen ditu 2008. urterako landu duen aurrekontuan: "hiru ardatz estrategiko izango ditu: politika kulturala, politika soziala eta zerbitzu komunitarioen politika".

### Inbertsio publikoa nabarmenena

Onartutako aurrekontuetan ikus daitekeen daturik nabarmenena inbertsio publikoa da, aurrekontuaren %47,2a baita, hau da, 2008. urterako 19,5 milioi eurotako inbertsio publikoa aurrikusten dute. Inbertsio nagusiena Loidi-Barren (2006-2009) urbanizazioaren eraikuntzarekin jarraitzeko da, 3 milioi eurotako. Beste inbertsio nabarmen bat Oriako pabiloien atzeko aldea eraberritzeko izango da (2,6 milioi euro). Beste hainbat milioi kirol instalakuntzetan gastatuko dituzte, batez ere, udal kiroldegiko

fatxada eta teilatua konponitzeko.

Udaletxe berriaren lanak 2008 eta 2011 bitartean egitea aurrikusten dute eta Gobernu Taldeak osatutako aurrekontuan 1,7 milioi euro jasotzen dira udaletxe berria eraikitzeko. Zaharren egoitza birgaitzeko 1,6 milioi euro bideratuko dituzte.

2008. urteko aurrekontuan ondorengo inbertsioak aurrikusten dira, besteak beste: Michelingo atzealdean ibai ondoko ibilbidea egiteko 772.500 euro eta ikastetxeetan berrikuntzak egiteko 338.000 euro jasotzen dira.

Ana Urchuegiak aurrekontua defendatu zuen osoko bilkuran: "aurrekontu soziala, berdea, lehiakorra eta solidarioa aurkeztu dugu".

### Oposizioak oposizioa egiten jarraitzen du

Gobernu Taldeak aurkeztutako aurrekontuaren aurka EAJ-PNV, PP eta EAE-ANV taldeek osoko emendakinak eta oposizioa egiteko arteen guztira 56 emendakin partzial aurkeztu zituzten. Oposizioaren kritika nagusiak ondorengoak izan ziren: partaidetzarik gabeko aurrekontuak direla, salmenta libreko etxebizitzetara lehenatasuna ematen ari zaiela eta euskararekiko konprometua hartu behar duela Udalak.

2008ko aurrekontu orokorra	GASTUAK		SARRERAK	
<b>ADMINISTRAZIOA</b>	9.246.957,66	22,39%	12,00	
• Administrazio Orokorra	962.195,67	2,33 %		
• Idazkaritza Nagusia	7.745,25	0,02 %		
• Barne Erregimena	8.017.543,98	19,42 %	12,00	
• Udaltzaingoa	32.267,38	0,08 %		
• Informatikako Zerbitzuak	227.205,38	0,55 %		
<b>EKONOMIA ETA ONDAREA</b>	1.596.415,02	3,87%	27.528.886,68	66,66%
• Kontu-ikuskatzailetza, Ogasuna eta Ondarea	1.579.505,43	96,00 %	27.416.485,78	66,39 %
• Diruzaintza	16.909,59	0,04 %	112.400,90	0,27 %
<b>KULTURA ETA HEZKUNTZA</b>	1.119.201,06	2,71%	615.401,91	1,49%
• Kultura	514.675,86	1,25 %	287.676,19	0,70 %
• Hezkuntza	604.525,20	1,46 %	327.734,72	0,79 %
<b>GAZTERIA, JAIK ETA KIROLAK</b>	1.373.080,03	3,33%	520.442,72	1,26%
• Jaiak	277.762,75	0,67 %	8.000,00	0,02 %
• Gazteria	152.608,33	0,37 %	25.399,25	0,06 %
• Kirolak	942.708,95	2,28 %	487.043,47	1,18 %
<b>EUSKARA</b>	405.398,96	0,98%	359.575,00	0,87%
<b>ZERBITZU SOZIALAK</b>	3.510.469,59	8,50%	2.422.228,87	5,87%
• Zerbitzu Sozialak	3.414.164,01	8,27 %	1.728.143,05	4,18 %
• Enpleguaren Sustapena	96.305,58	0,23 %	694.085,82	1,68 %
<b>HIRIGINTZA, OBRAK eta HIRI-KUDEAKETA</b>	16.801.149,26	40,69%	9.614.344,60	23,28%
• Obrak				
• Hirigintza eta Hiri-Kudeaketa	16.710.118,05	40,47 %	9.614.344,60	23,28 %
• Ingurunearen babesa	91.031,21	0,22 %		
<b>ZERBITZU PUBLIKOAK</b>	6.988.736,06	16,92%	195.545,71	0,47%
• Zerbitzu publikoak	6.311.774,80	15,28 %	195.545,71	0,47 %
• Ingurunea-Parke eta Lorategiak	676.961,26	1,64 %		
<b>INGURUNEA, MERKATARITZA, KONTSUMOA eta SANITATEA</b>	253.105,26	0,61%	38.066,41	0,09%
• Merkataritza, Kontsumoa eta Sanitatea	140.335,26	0,34 %	23.566,41	0,06 %
• Ingurunea	112.770,00	0,27 %	14.500,00	0,04 %
<b>GUZTIRA</b>	<b>41.294.512,90</b>	<b>100,00%</b>	<b>41.294.512,90</b>	<b>100,00%</b>

## Etxebizitza sozialen errenta-erregimena 5 urtetik 10 urteetara luzatuko da

Hiru gaien inguruan bozkatu behar izan zuten zinegotziak atzo, goizean, ohiko bilkuran. Batetik, Lasarte-Oriako Udalaren titularitatepeko etxebizitza sozialen errenta-erregimenari buruzko araudia aldatzea erabaki zuten, hau da, errenta-erregimena 5 urtetik 10 urteetara luzatzea. PP eta EAJ-PNV abstenitu egin zirenean gainontzeko zinegotzi guztiak aldaketaren alde botoa eman zuten.

Bestetik, Ana Urchuegi alkateak Gehitu elkarteak aurkeztutako mozioa proposatu

zuen bilkuran eta aho batez onartu zen. Onartutako adierazpen-proposamenean ondorengoak jasotzen da: "Osasunaren Munduko Erakundearen Batzar Nagusiak homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik ezabatu zuenetik maiatzaren 17an 18 urte beteko dira... Udalak, egun horretan, bat egingo du Homofobiaren eta Transfobiaren Kontrako Borrokaren Nazioarteko Eguna izendatzearen aldeko ekimenekin, sexu-orientazioa eta genero-identitatea pertsona guztien eskubide-parekotasuna

lortzeko eta sustatzeko borondatearen ikur gisa".

### Laneko osasunaren defentsan


Udal Taldeak aurkeztutako laneko osasunaren inguruko mozioa aho batez onartu zen bilkuran, denen artean testuan aldaketa bat egin ondoren. Onartu duten mozioarekin, Udalak honako konpromezuak hartu ditu: batetik, laneko arriskuen gaineko jarrera aktiboa izango duela eta bestetik, prebentzioa sustatzeko ohitura sortuko duela.



lazio otsailean egin zen etxebizitza sozialen azken zozketa.



Batzuk Orkatzategiko gailurra zapaldu zuten, beste batzuk Aitzuloko leihoan geratu ziren bitartean.



Giro bikainarekin burutu zen Oinatzten estrenaldia Araotz inguruan.

# Oinatz taldearen lehen irteera arrakastatsua

Mendi tontor, aitzulo, baseliza, auzo eta Oñatiko herria ikusi zituzten besteak beste toki bakoitzeko bitxikeri eta xehetasunak jasota

JON ALTUNA

Oinatz taldeak antolatu duen lehen irteera arrakastatsua izan da. Giro bikaina egin zuen apirilaren 27an, aurretik prestatutako egitaraua bete zen oro har eta hainbeste gauza berri ezagutzeko aukera izan zuen parte hartu zuten 20 lagunek: Araotz auzoa, Orkatzategi mendia, Haitzuloko leihoa, Sandali baseliza, Arrikutzeko kobazuloa, Oñatiko herria eta bertako eliza, besteak beste. Gainera toki bakoitzeko berezitasun, istorio eta kontuak jakinarazi zizkien antolatzaileek, aurretik prestatutako irteera berezi honetan.

Oinatz taldearen asmoa da bisitatzeko dituzten tokien erreferentzia historikoak, bitxikeriak eta xehetasunak ezagutaraztea. Horrela, Amerikan El Dorado urrezko paraiearen bila ibilitako Lope de Agirreren bizitzaren errebasoa egin zen jaio zen auzoko baselizan, bestalde, Sandali baselizako leiendak kontatu ziren edo Oñatiko elizaren istorioa beste bitxikeria batzuen artean.

Arrikutzeko kobazuloan gida batek lagunduta egin zuten bisita eta Oñatiko elizan apaizak berak erakutsi zizkien klaustroa, azpitik pasatzen den erreka edo krip-

ta besteak beste. Toki guztietan zen adituren bat bertako berezitasunen berri emateko.

Taldean denetik zen 7 urtetik hasi eta 74 urte arterainokoak eta denok pozik uzteko, ibilbide ezberdinak prestatu zituen Oinatz-ek, hanka pausutik izena hartu duen taldeak, hain zuen ere, Oñati aldera egin duen lehen irteeran. Batzuk Haitzulo bazterreko leihoan geratu ziren eta besteak Orkatzategiko tontorrera joan. Bertatik Deba bailararen goialdearen ikuspegi dotoreaz gozatu zuten, Urkulu, Udalaiz, Aizorrotz, erreka bazterrak, auzotan banatutako baserri, eta abar.

Aipagarri da Solaskide programan aritzen diren lau pertsona ere izan zirela irteeran,

eta euskaraz egun pasa ederra egiteko aukera izan zuten.

Goizeko mendi bueltaren ondoren Araotzeko baselizako aterpean egin zuten otordua. Bertan eman ziren Lope de Agirreri buruzko azalpenak.

Sandaliko baseliza ere berezia da, eskalada eskolara erabiltzen dituen hormen ondoan, harkaitz handi baten azpian eraikia dago eta ondo aska bati buruzko leienda bitxi bat bada: emakume antzuek edo haurrak izateko arazoak zituztenek ume txikien arropak eraman ohi zituzten haurdun geratu ahal izateko. Askan arropak busti eta zintzilikatuta jartzen zituzten. Zenbat ume nahi zituzten hainbat hatz sartzen omen zituzten uretan. •

*7 urtekoetatik 74 urtekoetara, denetik izan zen irteeran. Solaskide programan ari diren lau lagunek euskaraz egun pasa ederra egiteko aukera ere izan zuten*



**Kiroletako agenda**

**FUTBOLA**

**Larunbata 10**

**10:00etan**, Ostadar-Añorga (Emakumezkoen KDT F-11, txapeldunen fasea) Michelinen.  
**15:30ean**, Ostadar-Mariño (Jubenilen I.maila, igoera fasea) Michelinen.  
**17:15ean**, Ostadar-Oiartzun (II. Erregionala, igoera fasea) Michelinen.

**11:00etan**, Amaiak Bat-Ostadar (Infantilen I.maila, Igoera fase) Errotazar, Deba.  
**15:30ean**, Sporting de Herrera-LOKE Texas Lasartearra (Jubenilen I.maila, igoera fasea) Herreran (Donostia).  
**15:30ean**, Elgeta K.E.-LOKE Texas Lasartearra (II. Erregionala, kopa) Unbe Inf., Eibarren.  
**17:00etan**, Ondarroako Aurreira-Ostadar (Kadeteen I.maila, igoera fasea) Zaldupe, Ondarroan.  
**17:30ean**, Bergara-Ostadar (Infantila, eskolarra) Ipintza, Bergara.

**Igandea 11**

**10:00etan**, Sance-Ostadar (Alebinak, txapeldunen fasea) Felix Garin 2.



**ARETO-FUTBOLA**

**Larunbata 10**

**16:15ean**, Zarautz-ISU leihoak Antoniano kiroldegian, Zarautz.

**17:30ean**, Zurt-Buenetxea Zubiaurre, Azkoitia.

**Igandea 11**

**10:15ean**, Aldaz H.K.-Zaldibia Kiroldegian.

**HERRIKO TXAPELKETA Larunbata 10**

FINALAURREKOA  
 KIROLDEGIAN  
**9:10ean**, Buenetxea-ISU  
**10:00etan**, Izkiña-Donegal

MICHELINEN  
**10:50ean**, Morrison-Epel  
**11:40ean**, Jordi-Abend

**Igandea 11**

FINALAURREKOA  
 MICHELINEN  
**9:10ean**, Los Lunis-Mostatxo  
**10:00etan**, F. Ruiz-Danena



**PILOTA**

**Larunbata 10**

**16:00etan**, Intza-Oiarpe (Eskuz binaka, alebinak) Astigarraan.  
**16:00etan**, Intza-Oiarpe (Eskuz binaka, alebinak) Urnietan.  
**17:00etan**, Intza-Gazteleku (eskuz banaka) Oiartzunen, Madalensoron.

# David Martin irabazle Andoaingo krosean

Pili Bodegas txapeldunordea emakumezkoetan

**TXINTXARRI**

Martinek 0:32:34ko marka lortu eta alde nabarmena atera zien atzean zetozenei. Oscar Sevillak hamazazpigarren postua eskuratu arren ez zuen denbora txarrik egin. Emakumeen kategorian Carmen Pereak irabazi zuen baina herriko Pili Bodegasek bigarren postua lortu zuen 0:25:56ko denbora eginez. Irabazleak segundu erdi eskasa atera zion lasarteoiatarrari. Emakumezkoetan herriko Eva Olazagutia ere izan zen bertan, 0:37:47ko denbora egin zuen.

Giro polita sortu zen Andoainen aurtengo langileen egunean.



Davidek (eskuinekoa), iazko Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoa ere irabazi zuen.

## Herrikoak txapelketatik kanpo

Herrien arteko esku pilota txapelketan lasarteoiatarrak kanpoan geratu dira Usurbilen aurka jokaturako kanporaketan. Aurreko bueltan 1 eta 2koa lortu bazuten Usurbilen, larunbatekoan Lasarte-Orian 0 eta 3ko emaitzarekin bukatu zuten. Unai De Miguel eta Gorka Mendizabal kadeteek 6-22ko emaitzarekin bukatu zuten, irabazten hasi baziren ere. Jubenilak hobeto ibili ziren, 15 tanto egin zituzten Jon Pello Artetxe eta Xabier Arteagak, baina ezin irabazi. Nagusiek ere ez zuten garaiarik lortu eta gainera Mikel Landak min hartu zuen.



Arg.: Txema Valles

**Kiroletako oharrak**

**Finaletan tabernak ordu bete bat gehiago irekita**

Ostadar Kirol Fundazioak herriko tabernariei eta gainontzeko herritarrei jakinarazi nahi die areto-futboleko finalen egunean, maiatzaren 17an, eta Udalaren baimenarekin, tabernekin ordu bete beranduago itxi ditzaketela.

**Alebinentzako deialdia**

"Kirola zure herrian egin" lelopean, Ostadar K.F.k hurrengo denboraldian alebinen taldean jokatu nahi duten haurrentzat aurre inskripzioa ireki du. 1997an jaiotakoek eta Lasarte-

Orian bizi direnek, herrian ikasi edo ez, soilik eman dezakete izena. Izen ematea astelehenetik ostiralera, 19:00etatik 20:00ak bitartean Ostadarreko bulegoan, Geltoki 2an, eman daiteke, maiatzaren 30a bitartean. Jokalari kopurua mugatua denez, Ostadarrek ekainean entrenamendueta-rako deialdia egingo du.



**Badator Ostadar Porra!**

Ostadar K.F.k txirrindularitzako porra Giroarekin hasten da, maiatzaren 10ean. Boletoak oiko tabernetan aurkituko dituzue. Hauek egiteko epea larunbatean 21:00etan amaitzen da. Porraren funtzionamendua betikoa izango da, baita boletoaren prezioa ere, 7 euro. Sariei dagokionez: etapako 60 euro, sailkapen orokorreko lehenarentzat 360 euro eta 2.narentzat 180 euro; 8 urdaiazpiko zozketan eta urtero legez, Giro, Tour eta Vueltako onenak 1.600 euro irabaziko ditu.



Egunero

**Erakusketa**

SAHARA KANPAMENDUETAKO ARGAZKIAK ikusgai Sahararen lagunak elkartearen eskutik. Jalgin, egun osoan.

**Erakusketa**

XXII. PINTURA TAILERRAREN erakusketa Bizilagunen elkarteak antolatuta. Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Ostirala, 9

**Musika**

ROSAT ETA RUTI EN TRIO, Danok Kidek antolatutako III. Topaketa Musikalen barruan. Brigitarren komentuan, 19:30ean.

Larunbata, 10

**Azoka**

KOOPERAZIOAREN III. AZOKA. Okendo plazan, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Igande, 11

**Zinea**

HORTON haurrentzako filma Kulturetxean, 17:00etan. Sarrera, 3 EUFO. GAZTELANIAZ.



*Folk eta pop estiloak Jalgin*

JOSEBA IRAZOKI musikari Beratarrek emanaldia eskainiko du Jalgin taldekide batzuekin batera. Hainbat urtetan musikari desberdinekin (Xabier Montoia, Bidertzean, Petti, Gozategi anaiak, Anje Duhalde, Maixa eta Ixiar, ... ) lan egin eta gero konposizioaren munduan murgildu zen, ONDDO talde Beratarra osatu zuenean. Orain dela 2 urte bakarkako ibilbideari ekin zion.

JALGIN GAUR 22:30EAN  
EUSKARAZ

Asteartea, 13

**Hitzaldia**

OPORRAK BAKEAN hitzaldia Sahara Herriaren Lagunek antolatuta. Sarrera dohainik. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan, GAZTELANIAZ.

Osteguna, 15

**Hitzaldia**

BAKARDADEA NOLA BIZI ETA GAIN-DITU azalduko duen hitzaldia Gipuzkoako esperantzaren telefonoa kudeatzen duten kideek eskainita. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:30ean, GAZTELANIAZ.

Ostirala, 16

**Kontzertua**

JAM SESIOA, Julen Cobosen emanaldia, runba eta pop estiloak... Jalgin 22:30ean.

Ostirala 23

**Antzerkia**

"OGIYIK KARRI ETZUN SEMIA" antzezlan Txirene antzerki taldearen eskutik Jalgi kafe antzokian 22:30ean. Kultur Errotaren zirkuituaren barruan. EUSKARAZ.

**Eskutitzak**

**Alkate anderearentzat**

Apirilaren 17an Lasarte-Oriako udalbatzarra antolatuta zen. Ekitaldi honetan, Urchueguía alkateari lagunduz, gazte saileko zinegotzi den Jesus Maria Zaballós eta Lasarte-Usurbil institutuko zuzendaria den Esther Urrutia egon ziren. Gaur egungo arazoetaz gazteok gure iritzia ematea eta udalari erreklamazioak egitea zituen helburutzat. Ideia erakargarria iruditu zitzaigun, hortaz, gure manifestuak prestatzeari ekin genion, ilusio handiz, gainera. Honeraino, dena ondo zihoan...

16 manifestuak irakurritakoan Urchueguía andereak hartu zuen hitza. Erantzuterako orduan izan zuen jarrera lotsagarria iruditzen zaigu. Aipatutako manifestuak aurrez jaso zituela ere helarazi nahi genuke, horietako asko euskara hutsuz zirelako eta jakin bada-kigu, gure alkate andereak zailtasun nabarmenak dituela euskara ulertzeko, hala, erantzunak prestatuak zituen eta ez zuen inongo trabarik izan "zinegotzi" berrioi berehala erantzuteko.

Bere jarrera, ordea, prepotentziaz beterikoa izan zen, inongo autokritikarik egiteko ez zen gai izan, gaiekin bat ez zetozen erantzunak entzutea ere tokatu zitzaigun... Eta, gainera, bere erantzunak amaitzean ez genuen gure iritzirik emateko aukerarik izan.

Azkenean, hain ideia polita zena, Anak zapuztu zuen.

Bestalde, Zaballós jaunaren jarrera goraiatu eta eskertu nahi genuke. Gurekiko izan zuen jarrera oso egokia eta umila izan baitzen gure uste-tan, eta oneoro oso eroso sentiarazi gintuen bere "jefak" egin ez zuen moduan.

Alkatearen erantzunen nondik norakoak aurrez ezagutu izan bagenu, ez genuke, ziurtenik, halako lanik hartuko gure manifestuak prestatzen, alperrik egin ditugunaren sinesmenarekin geratu bakara.


Hurrengo gazte udalbatzarrei begira (egongo badira), Ana, zure erantzunetan, zure ondoan eseritako gazteak zure aurkari politikoak ez direla kontutan hartzea eskatu nahi genizuke, eta erantzun batzuetan izan zenuen agribitate puntu hori jaista.

Guk uste dugu, denok eskertuko dugula zure alde-tik jarrera umilxeago bat.

Besterik ez, milesker.

**Jon Pello Artetxe eta Iker Eneko Ortega**  
(Lasarte-Usurbil Institutuko ikasleak)

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara  
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



**Ostiralero programa!**

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era. Gurekin ondo pasatuko duzuelakotan, ostiralera arte!

**Oharrak**

**Zabaletako jaiak**

Auzoko jaiak antolatzeko bilera egingo da ostiralero Antoni plazan iluntzeko 19:30ean. Aurten aldaketa txiki bat dago eta jaiak maiatzaren 27tik ekainaren 1a arte izango dira.

**XXXI Mus Txapelketako finaleko afaria**

Lasartearra elkarteak ekainaren 7an izango den XXXI. Mus Txapelketako finaleko afarirako izena emateko epea zabalik dagoela jakinarazi nahi die bazkide eta lagunei. Interesatuak, elkartetik pasa behar dute eta izena emateko azken eguna ekainaren 4a izango da.

**Biyak Bat elkartearen bidaia**

Biyak Bat elkarteak bazkide guztientzako antolatu dute Benidormera bidaia. Irteera maiatzaren 19an izango da eta itzulera ekainaren 2an. Benidormeko Poseidon Playa izeneko hotelean hartuko

dute ostatu. Norbaitek interesarik badu edo informazio gehiago nahiko balu, Biyak Bat elkarteak Kale Nagusian duen egoitzatik pasa behar du.

**Udako Txokoak**

Takun Kultur Elkarteak antolatutako Udako txokotarako epea gaurtik maiatzaren 28ra bitartean zabalik dago. Izen ematea Amaraun ludotekan edo Takuneko bulegoan egin daiteke. Ordainketa kutxan edo Takuneko bulegoan txartelarekin egin ahal izango da.

**Gazte kanpaldiak**

Takun Kultur Elkartearen Gazte-txoentzako ere irteerak antolatuta dira, eta izen emateko epea irekita dago ekainaren 6 arte. Kanpaldi hauek LHko 3., 4., 5. eta 6. mailako gazteei; DBH1, 2 eta 3. mailako gazteei eta DBH4ko eta Batxilergoko gazteei zuzenduko daude. Izen ematea Takuneko bulegoetan egin ahal izan da

**Santa Anako Pala Txapelketa**

Aurten Santa Ana Pala Txapelketako XXVII. edizioa ospatzen da eta izen ematea iadanik irekita dago maiatzaren 19 arte, Gure Etxea tabernan.

**Udalak antolatzen dituen udalekuak**

Udaleko Zerbitzu Sozialen departamentuak urtero antolatzen dituen udalekuetan izena emateko epea gaur hasi da eta maiatzaren 30a bitartean luzatuko da. Udaleku hauek 10-14 urte bitarteko gazteentzako dira. Izen ematea Udaleko registro orokorrean.

**Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren oharra**

Gizarte Zerbitzuen Departamentuak gizarte-ongizatearen alorrean lanean diharduten erakunde eta elkarte guztiei jakinarazten die zabalik dagoela Gizarte Zerbitzuen Departamentu honek eman ohi

dituen dirulaguntzak eskuratzeko eskariak aurkezteko epea. Horretarako eskariak Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (9:00etatik 13:00etara bitartean), eskatutako agiriekin batera (Memoria, Gastuen Justifikazioa eta Jardueren Proposamena). Maiatzaren 5etik 30era aurkeztu daitezke eskariak.

**Merkatuan olio bilketa**

Asteazkenean ospatzen den merkatuan erabilitako olioak jasotzen dute, hileko lehenengo, bigarrenengo, hirugarrenengo eta azkeneko astean. Honetaz gain birziklatzeko ere bestelako gauzak jasotzen dituzte: mugikorak, Cdak...

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txintxarri@ttakun.com  
Geltoki kalea 4, behe

# Etengabe mugimenduan



**M**aider Oiartzabal dantzari lasarteoritarra ez da geldirik egoteko jaioa. Urteak daramatza dantzaren inguruan lanean; eskolak ematen ez bada, koreografiak sortzen edo beste dantza taldeekin kolaboratzen... Horietako kolaborazio bat egin berria du Kukai Dantza Konpainia eta Tanttaka Teatroak taldeen azken ikuskizunean.

Bi talde hauek *Hnuy illa* lana aurkeztuko dute asteburu honetan Leioan eta Errenterian. Ikuskizun poetikoa

da, dantza eta musika sujerenteen bidez azalduta. Joseba Sarrionandiaren testuak izango dira Kukai eta Tanttakaren ikuskizun berriaren ardatz. Gizakien arteko harremanak oinarri hartuta, amodioa, desamodioa, bakardadea, erbestea... jorratuko dituzte. Poesiak zipriritindutako ikuskizuna izango da. Dantzaren hizkuntza nagusia izanda ere, dantzarien mugimenduak poesia izango du bidelagun. Ikuskizuneko musikaren egilea Iñaki Salvador izango da

eta koreografoa Jon Maya. Elementu guzti hauekin Mireia Gabilondok osatuko du gidoia eta zuzendaritza. Mainerren lana obra honetako koreografiaren laguntza eta aholkatzea izan da.

## Eskuarteko proiektuak

Orain bi urte hasi ziren Kukai dantza konpainiako kideak Mainerrekin dantza garaikidea jorratzen, izan ere, taula gainean euskal dantzekin adierazi ezin dutena, garaikidearekin egiten dute.

Landaberri Dantza Eskola-

ko irakasle dugu Maider azken urteetan. Baina ez da eskuartean duen proiektu edo lan bakarra, beste batzuk ere baditu martxan.


Esaterako, iaz aurkeztu zuen "*Bidean*" proiektua Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen Koreografo Berrien Erakusketan, eta aukeratu izan zen. Iazko urriaren amaieran aurkeztu zuen "*Bidean*" Gasteizko Artiumen.

Mainerren lanak ikusteko aukera bikaina dago maiatzean. Gaur bertan Leioako Kulturlehioan iluntzeko

20:30ean eta igandean Oreretako Errenteria Hiria Kulturunean (Niessen) 20:00etan Kukai Dantza Konpainiaren *Hnuy illa* ikuskizuna taularatu dute.

Mainerrek berak sortutako "*Bidean*" lana berri, maiatzaren 31n Artelekun aurkeztuko du "Puntu itsua" eta "e-j-e-r-c-i-c-i-o-n-2" piezekin batera.

Aurrera begira Landaberri Dantza Eskolan irakasle lanean jarraitzeaz gain, proiektuak sortu eta lehiaketetara aurkezten jarraitzeko asmoa du. •



RPS 25/06



## Aldaz Hertz Klinikak tratamendu aurreratuenetan aplikatutako punta puntako teknologia eskaintzen dizu

- inplanteak eta hertz fijoak egun batean
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
- "invisalign" ortodontzi ikusezina
- pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
- interesik gabeko finantziazioa 12 hilabete arte

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko

**943 366 377**

Ola Kalea,10

Lasarte-Oria 20160 Gipuzkoa

[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)

